

TOKIKOM jardunaldia euskarazko hedabide lokalen geroaz

2012/06/08

Mundu osokoek bezalaxe, euskal hedabideek ere zuzen-zuzenean paraitu dituzte krisiaren zein globalizazioaren ondorioak, haien problematika bereziari gehitu zaizkionak: atomizazioa, merkatu mugatua, erdarazko egitura handiekin lehiatu beharra... Kontestu horretan, **elkarlaneko dinamika batean murgildu dira berriki**, etorkizuneko erronkei aurre egiteko baliabide eta estrategiak elkarrekin garatzeko. Zailtasunak zailtasun, **une zirraragarri eta itxaropentsuak bizi dira gaur egun sektorean**.

Tokiko hedabideak ere sendo ari dira aldaketa garaiari aurre egiten: hasteko eta behin, TOKIKOM sortu zuten 2009an, marka bateratu gisa. 2012an, berriz, marka hori edukiz hornitu eta azpisektorearen ordezkari bilakatzen ari den TOKIKOM enpresa sortzea erabaki dute, tokiko hedabideen esparru komunak, solaskidetza bateratua eta integrazio bideak kudeatzeko.

TOKIKOMen jardueraren estrategia nagusiak finkatzeko unea heldu da, eta horixe da hain zuzen jardunaldi hauetan elkarlanean landuko dena. Helburu nagusia, galdera orokor bezain garrantzitsuari erantzutea: **zer egitura komunikatibo behar dugu euskaldunok? Nola erantzun ahal diogu horri tokiko hedabideetatik?** Jardunaldia TOPAGUNEAK eta TOKIKOMek antolatu dugu, Eusko Jaurjaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Mondragon Unibertsitatearen laguntzaz.

Galdera horri erantzuteko, gogoeta teoriko-praktikoa egingo dugu **ekainaren 15ean, ostirala, Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean**. Adituek iradokitzen dizkiguten zertzelada teorikoak, han eta hemengo hedabideen esperientzia praktikoa eta bertan bultzatutako ideia jasa uztertuz, **euskarazko tokiko hedabideen etorkizuneko estrategiarako gakoak adosten saiatuko gara**. Euskal komunitateak soziolinguistika ikuspegitik nolako hedabideak behar dituen hausnartzeaz gain, behar hauetara egokitzeko medioek egokitu beharreko aspektuetan sakonduko da maila handiko adituen eskutik. Besteak beste, lagun hauek izango ditugu gonbidatu:

- Nekane Goikoetxea (HUHEZI, SORGUNEAK ikertegia), SORGUNEAK ikertegia eta Topagunearen arteko elkarlanaren haritik, hedabideen funtzio eta helburu soziolinguistikoetaz arituko da Nekane, hedabideen *'euskararen normalizazioan laguntzeko'* helburu orokorraren esanahian eta inplikazioetan sakonduz.
- Aitor Zuberogoiatik eta Eneko Bidegainek (HUHEZI) hedabideen munduan sumatzen diren joera nagusiak hartuko dituzte hizpide eta, batez ere, joera horiek zer abantaila eta desabantaila ekar dezaketen tokiko hedabideen esparrura.
- Luistxo Fernandezek eta Gari Araolazak (CodeSyntax) ikuspegi teknologikoa txertatuko dute jardunaldian, IKTek tokiko hedabideei aurkezten dizkieten aukerak eta erronkak aztertuz.
- Belgikatik, Bart Bijmens-ek Belgikako **Het Belang Van Limburg** tokiko egunkari arrakastatsuen online eta offline esperientziaren berri emango digu.

Adituen ekarpenak entzunda, **parte hartzaileek ere izango dute haien ideiak, gogoetak eta kezak azaltzeko aukera**. Jardunaldiaren helburu nagusia euskaldunon komunitateak behar duen esparru komunikatibo berria diseinatzeako gakoak aurkitzea da, eta horretarako, funtsezkoa da dagoeneko esparru horretan lanean ari direnen ekarpenak biltzea.

Esan bezala, jardunaldia ekainaren 15ean izango da Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean, eta matrikula zabalik dago jadanik. Izena emateko zein egitarauaren azken xehetasunen berri topatuko duzu hemen.

